



# Soziolinguistika albistaria

7.zenbakia  
2017ko urtarrilak 11 – urtarrilak 24

## Soziolinguistika Klusterreko albistekak

---

### Hausnartu Sari-banaketa otsailaren 3an

Mario Zapatak, Txerra Rodriguezek eta Irati Lizeagak jasoko dituzte aurten IX. HAUSNARTU Sariak, San Telmo Museoan, otsailaren 3an izango den ekitaldian. Egileek lanak aurkezteko aukera izango dute, bertan, eta horrez gain, ETBko saioan oinarritutako “Tribuaren berbak” material didaktikoaren aurkezpena egingo dute Kike Amonarrizek, Iñaki Zapirainek eta Josune Zabalak.

### Soziolinguistika Klusterreko Josune Zabala AEKren VI. Didaktika Topaketan

Euskararen eta euskal soziolinguistikaren inguruko ikerketa lanetan dabil Josune eta horri buruzko saioa eskainiko du AEKren Didaktika Topaketan.

### Bangor Unibertsitateko Arwel Williams ikerlaria Klusterrean bisitan

Eusle metodologia hurbiletik ezagutzeko Bangor Unibertsitateko Arwel Williams ikerlaria Klusterrean izan da bisitan.

## Ikerketak

---

### 1991tik lehendabizikoz euskararen erabilpenak gora egin du Nafarroan

Inkesta Soziolinguistikoa bost urtean behin egiten da Euskal Herri osoan. Nafarroako datuen berri eman, eta datozen asteetan aurkeztuko dituzte parlamentuan. Nafarroan, maiatzean egin zuen landa lana Ikertalde enpresak, hain zuzen ere, euskararen inguruko bi polemika piztuta zeudenean: Lan Eskaintza Publikoaren eta euskarazko haur eskolen ingurukoak. Garrantzitsua da datua, biek ala biek eragina izanzen baitzuten emaitzan.

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

---

### Topaldia urtarrilaren 25 eta 26an, zubigintza ardatz

Urtarrilaren 25 eta 26an egingo da Durangoko Landako elkartegian aurtengo Topaldia. “Euskararen herria: zubiak eta palankak” izenburuko jardunaldiotan, zubigintza izango da gai nagusia.

### El segon cicle de sociolingüística a les Terres de l'Ebre abordarà la situació de la llengua catalana a l'escola i entre els joves

El II Cicle de Conferències sobre Sociolingüística a les Terres de l'Ebre “Llengua, societat i poder”, porta enguany el títol de “L'escola i la revitalització del català: la llengua a l'aula i al pati”.

### Cinquena sessió del Seminari de Sociolingüística i Política Lingüística del CUSC-UB

Aquest divendres 13 de gener del 2017 tindrà lloc la cinquena sessió del curs 2016/2017 del Seminari de sociolingüística i política lingüística del CUSC. En aquesta ocasió, Natxo Sorolla (URV, Xarxa Cruscat i CUSC-UB) comentarà el llibre de John Edwards, *Minority Languages and Group Identity. Cases and Categories* (Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 2010).

### Sociolinguistics Summer School (Barcelona)

El comitè organitzador de la 8a edició de la Sociolinguistics Summer School estem molt satisfets de poder-vos anunciar la celebració d'aquest esdeveniment a la Universitat Oberta de Catalunya del 4 al 7 de juliol del 2017.

### X Jornades dels Drets Lingüístics (JDL 2016): «Avaluar les polítiques lingüístiques: quins objectius, criteris, indicadors?» – Anton Ferret

Els estudis sobre les polítiques lingüístiques i la planificació lingüística estan fent un gir cap a l'avaluació de l'eficàcia des d'una perspectiva més general d'avaluació de polítiques públiques.

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

---

### BAT aldizkaria: argitalpen berriak

- Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981 - 2011) (I)
- Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981 - 2011) (II)
- Unibertitatearen erantzukizun soziala euskararekiko

### Plurilingual corpora and polylinguaging, where corpus linguistics meets contact linguistics

Language contact and multilingualism issues are addressed by such diverse research traditions that we consider corpora and data exchange as good ways to make these traditions speak to one another.

## Bestelako albisteak

---

### Zer da hizkuntzalaritza konputazionala? (K.Sarasola, Zientzia Kaiera)

Zientzia Kaiera (2017-01-20): Zer da hizkuntzaren prozesamendua? UPV/EHUko "Kultura Zientifikoa" Katedrak gure ikertaldeko kidea den Kepa Sarasolarekin bideo bat grabatu du *Hizkuntzalaritza Konputazionala* zer den azaltzeko.

### Erika Mendibil (Fagor Arrasate): "Inguruak hainbat hizkuntza erabiltzea eskatzen digu, baina euskarari uko egin gabe eta lekuan lekuko hizkuntzari lekua eginda"

Erika Mendibil Fagor Arrasateko pertsonal burua eta euskara koordinatzailea da 2008tik. Bera izan da hizkuntz aniztasunaren kudeaketa proiektua gidatu duena, 2015ean lanketa prozesua hasi eta 2016ko urrian Kontseilu Errektoreak onartu duen arte.

### "Hizkuntza kontrolatzeari utzi behar zaio"

Hizkuntzaren biziberritzeak eskolatik komunitatera igaro behar duela uste du Julia Sallabanek. Nabarmendu du ez dagoela konponbide tekniko eta teknologikorik: "Guk biziberrituko dugu gure hizkuntza".

### "Izan, egin, eragin" gogoeta egiten ari da Euskal Herrian Euskaraz

Barne gogoeta egiten ari da Euskal Herrian Euskaraz. "Izan, egin, eragin" izena hartu duen gogoeta txostena zabaldu eta ekarpena egiteko aukera izan dute Euskal Herrian Euskarazeko kideek eta baita gainontzeko euskaltzaleek ere.



BABESLEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

BAZKIDE PARTAIDEA

**emun**  
HIZKUNTZA ZERBITZUAK